



STEAM

HEZKUNTZA

eta

STEM

PROFESIOAK

gazteak
INSPIRATZEKO



elhuyar

STEM niretzat
izan daiteke

Argitaratzailea:

Elhuyar

Laguntzailea:

GFA. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak diruz lagundutako proiektua

Irudien lizentzia:

Creative Commons, Ez Komertziala eta Errekonozimendua

Liburuaren lizentzia:

Creative Commons, Ez Komertziala eta Errekonozimendua

Egileak:

Elhuyar STEAM Hezkuntza arloa

Aitziber Lasa Iglesias

Danel Solabarrieta Arrizabalaga

Lurdes Ansa Maiz

Irudiak:

Pernan Goñi Olalde

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespena du: 2020-10-29

Lege-gordailua: D 00811-2020

elhuyar




Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta
Landa Inguruneko Departamentua

Aurkibidea

STEAM, sigletatik haratago _____	01	STEAM hezkuntza eskolatik at _____	55
Nondik dator STEAM _____	03	Azokak, museoak, bisitak _____	57
STEM eta STEAM: ezberdintasun batzuk _____	04	Familia eta parekoak _____	58
Zer da STEAM hezkuntza _____	05	Zientzia-kapitala _____	60
STEAM hezkuntzaren mito faltsuak _____	06	STEM erreferenteak _____	63
Zergatik STEAM _____	07	STEM profesioak: galaxien unibertsoa _____	65
Komunitate aktiboa eta kritikoa helburu _____	09	Gaitasun baloratuena lan munduan _____	67
Etorkizunerako STEM profesionalen beharra _____	10	STEM profesioak... Hauek bakarrik? _____	68
Zer diote hemengo gazteek? _____	16	Ikasketetatik profesioen galaxiara _____	69
STEAM hezkuntzaz, mundu jasangarria _____	18	OrientaTU _____	71
Ikerketa eta berrikuntza arduratsua _____	23	Lanbideak eta ikasketak STEAM Euskadi estrategian _____	72
Bizipenak eta komunitatea _____	24	The Amazing Enormeus STEM Careers Poster _____	73
STEAM Euskadi estrategia _____	27		
STEAM hezkuntza ikastetxeetan _____	29	STEAM, neskak eta emakumeak _____	74
Zientziari buruzko ezagutza _____	31	Emakume eta nesken egoera STEM munduan _____	76
Zer jakin behar da zientziaz? _____	33	Emakume eta nesken egoera STEM ikasketetan _____	77
Zer dio zientzien didaktikaren ikerketak? _____	38	Emakumeen parte-hartzearen faktoreak _____	82
Euskadiko ikastetxeak _____	51	Emakumeen STEMekiko interesa sustatzea _____	86
STEAMGUNEA _____	54		

STEAM, SIGLETATIK HARATAGO




STEAM, SIGLETATIK HARATAGO

- **Nondik dator STEAM**
- **STEM eta STEAM: ezberdintasun batzuk**
- **STEAM hezkuntza**
- **STEAM hezkuntzaren mito faltsuak**

Nondik dator STEAM

50eko hamarkadan hasi eta gaur arte



Iturria: Centre de Recerca per a l'Educació Científica i Matemàtica (CRECIM), Universidad Autònoma de Barcelona.

STEM eta STEAM: ezberdintasun batzuk

STEAM: Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Artea, Matematika.

Artearen A hizkia: Hainbat esanahi hartu ditu. Artea zen hasieran, gaur egun diziplina guztien ikuspegi barneratzailea du.

Ezagutza teorikoen garapena praktikan aplikatzera zuzentzen da STEAM hezkuntza. Horrela, ingeniartzaren ikuspegiari eta arazo teknologikoak konpontzeari garrantzi handia eman zaio.

STEM profesioak: zientzia, teknologia, ingeniartza eta matematikarekin zuzenean lotutako lanbideak dira. Batzuek osasun-zientziak eta gizarte-zientziak ere STEM profesioetan sartzen dituzte; beste batzuek, ordea, ez.



Zer da STEAM HEZKUNTZA

STEAM
SCIENCE
TECHNOLOGY
ENGINEERING
ARTS
MATHEMATICS

HEZKUNTZA BERRITU



KONSTRUKTIBISMOA



EMAKUMEOK ...




ESKOLATIK ATERATZEA



GIZARTEKO ERAGILEEN ARDURA PARTEKATUA



IKASLEA ERDIAN



21. MENDEKO KONPETENTZIAK



DIZIPLINARTE-KOTASUNA



SAREAREN BEHARRA

EZAGUTZA



ERRONKA IKUSPEGIA eta


METODOLOGIA AKTIBOAK



STEAM hezkuntzaren mito faltsuak

- ✗ STEAM hezkuntza metodologia-aldaketa hutsa da.
- ✗ Irakaslearentzat metodologia aldatzea erraza da eta bat-batean egin lezake.
- ✗ Proiektuetan lan egitean irakasleak ez du azalpen teorikorik eman behar.
- ✗ STEAM egiteko, diziplina guztiak beti.
- ✗ Ikasleek gutxiago ikasten dute proiektuetan lan eginda.
- ✗ Ikasle guztiek nahiago dute proiektuetan lan egin.
- ✗ Ikasleek autonomia osoz lan egin behar dute beren proiektuetan.
- ✗ Proiektuetan lan egitean manipulazioa da garrantzitsuena.
- ✗ Ebaluazio formatiboaren erabilera zabaldua dago hezkuntza formalean.


ZERGATIK STEAM



ZER GATIK STEAM

- Komunitate aktiboa eta kritikoa helburu.
- Etorkizunerako STEM profesionalen beharra.
- Zer diote hemengo gazteek?
- STEAM hezkuntzaz, mundu jasangarria.
- Ikerketa eta berrikuntza arduratsua.
- Bizipenak eta komunitatea.
- STEAM Euskadi estrategia.

Komunitate aktiboa eta kritikoa helburu



IKasleak



Profesionalak




Familiak



Adituak



Gizartea



Laborategiak



Unibertsitateak


STEM
PROFESIONAL
GEHIAGO

behar
ditugu



Bestelako STEM profesionalak

21. MENDEKO KONPETENTZIAK



Problemen
ebazpena



Pentsamendu
Kritikoa




Sormena



Zaintza

Adimen
Emozionala




Talde-gidaritza



Erabakiak hartzea

EMAKUME
eta GIZONEN
arteko
BERDINTASUNA



STEM profesioetan

Munduko
ERRONKEI
aurre egin



BALIOETAN
oinarrituta

Etorkizunerako STEM profesionalen beharra

STEM profesionalen eskaera

- Etorkizunean, lanpostuen % 80an STEM konpetentziak beharrezko.
- Sektore ekonomiko guztietan behar dira STEM profesionalak.
- EBn profesionalen beharra: IKT, medikuak, STEM, irakasleak...



Economía | La falta de profesionales amenaza el futuro del pujante sector tecnológico de Euskadi

La falta de profesionales amenaza el futuro del pujante sector tecnológico de Euskadi

APORTACIÓN POR ÁREAS AL CONJUNTO DE OFERTAS DE EMPLEO EN EL SECTOR TIC



Las TIC, que generan el 5% del PIB vasco y más de 20.000 empleos directos, ofrecen contratos estables y un potencial «extraordinario»



MIKEL MADINABEITIA

Domingo, 9 junio 2019, 07:38



STEM bokazioen jaitsiera

- Unibertsitateetan sartzeko baldintza gogorrak.
- Uzte-tasa handiak.
- Emakumeen parte-hartze txikia.
- “Garunen ihesa” atzerrira edo beste lan-esparru batzuetara.
- Erakargarritasun falta.
- Estres handiko lan-inguruneak.
- Soldaten beherakadak.


ELMUNDO

OLGA R. SANMARTÍN Jueves, 19 diciembre 2019

EDUCACIÓN • Informe

Los universitarios matriculados en carreras tecnológicas caen un 30% porque "no compensa el esfuerzo"

El presidente de los rectores advierte que "sin suficientes ingenieros, matemáticos, físicos o químicos nos quedaremos fuera de la Revolución 4.0 y seremos tecnológicamente dependientes"




Alumnos de la Universidad Pompeu Fabra de Barcelona. EFE

Euskadin


2030rako

% 10 ikasle gutxiago
eskoletan
(16 urtera arte)




Batxilergoko

% 54k
aukeratzen du
prestakuntza
zientifiko-teknologikoa



2016tik

% 16 gutxiago
matrikulatu dira
STEM ikasketetan




LHtik eta unibertsitatetik
STEM titulazioekin:
Ikasleen % 39a




Ikasle neskak
STEM adarretan:


LHn,
totalaren
% 9



Unibertsitatean,
totalaren
% 31



2018-2020ra
STEM profilen
enpresa eskaera:



STEAM European

- 2017an, EBko 18 milioi zientzialari eta ingeniarietatik, % 59 gizonak ziren eta % 41 emakumeak.


- Batez ere goi-teknologiako eta erdi-teknologiako fabrikazioaren industrian, gizonen presentzia nabarmen handiagoa da (% 83 gizonak); zerbitzu-sektorean, aldiz, orekatua dago (gizonak % 55, emakumeak % 45).

- Hala ere, EBko bost estatu kidetan, zientzialari eta ingeniari gehienak emakumeak dira:

Lituania (% 57), Bulgaria eta Letonia (% 53), Portugal (% 51) eta Danimarka (% 50).

- Zientzialarien eta ingeniarien herena baino gutxiago ziren emakumeak:


Hungarian eta Luxenburgon (% 25), Finlandian (% 29) eta Alemanian (% 33).




STEAM Europan

Zientzialari eta ingeniari emakumeak

2017an, EBn, 18 milioi zientzialari eta ingeniari



EUROPAR BATASUNA




Iturria: Scientists and engineers in the EU (2017). ec.europa.eu/eurostat.



STEAM Europan

Zientzialari eta ingeniari emakumeak herrialdeka

Proportion of women scientists and engineers in the EU (2017)



Iturria: Scientists and engineers in the EU (2017). ec.europa.eu/eurostat.

Zer diote hemengo gazteek?

Neskek interes handiagoa gai gehiagotan.



Mutilek interesak fokalizatuago.




Gazteen erdiek ez dute eskualdeko industria ezagutzen...



...eta ez zaie axola.

STEM profesionalen bizimodua



STEM profesionalen estereotipoak

- Langileak
- jakitsuak
- argiak
- pazientzia handikoak
- sortzaileak

Ikasle onak deskribatzeko hitzak!



Genero-estereotipoak lanbideak hautatzerakoan


• Neskek: osasun-zientziak eta irakaskuntza



• Mutilek: teknologia



Gazteek uste dute STEM eremuko lan-baldintzak ezberdinak direla generoari dagokionez.



Oharra: ez-bitarren kopuru orokorra ez da atera.


Iturria: "STEM arloko gaien eta lanbideen inguruko gazteen pertzepzioak". Elhuyar.

Zer izan nahiko zenuke nagusitan?



ESKUALDEKO INDUSTRIA hitz baten bidez deskribatzeko eskatuta, **ez dakit** da gehien errepikatutako erantzuna:

83 mutilek (% 31),
76 neskek (% 30) eta
9 ez-bitarrek (% 42).



Hausnarketarako gakoak eta etorkizunean ikertzeko:

- Eusko Jaurlaritzaren RIS Euskadi espezializazio-esparruetako lanpostuak gehienbat mutilentzat?
- Neskek administrazio publikoko lanetara jotzen dute?
- % 84k DBH3-4 mailatan oso argi du zer ikasi nahi duen (eta zer ez ikasi). (Everis)
- Erabakiak hartzerakoan faktore nagusia gurasoak dira, komunikabideen aurretik. (Everis)

STEAM hezkuntzaz, mundu jasangarria

2030 Agendaren edukiak: Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)



1. Pobrezia desagertzea



Helburua:
Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan.

3. Osasuna eta ongizatea



Helburua:
Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.

5. Genero-berdintasuna



Helburua:
Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.

2. Goserik ez izatea



Helburua:
Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea.

4. Kalitatezko hezkuntza



Helburua:
Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.

6. Edateko ura eta saneamendua



Helburua:
Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

7. Energia berriztagarriak



Helburua:

Energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat.

9. Berrikuntza eta azpiegitura



Helburua:

Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea.

11. Hiri eta komunitate jasangarriak



Helburua:

Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa



Helburua:

Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa eta lan duina sustatzea.

10. Desberdintasunak murriztea



Helburua:

Herrialde bakoitzean eta herrialdeen artean desberdintasunak murriztea.

12. Ekoizpena eta kontsumo arduratsua



Helburua:

Kontsumo- eta ekoizpen-modalitate jasangarriak bermatzea.

13. Klima babesteko ekintza

**Helburua:**

Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko.

15. Lehorreko bizitza

**Helburua:**

Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabil dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.

17. Itunak helburuak lortzeko

**Helburua:**

Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.

14. Uretako bizitza

**Helburua:**

Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu iraunkorrean erabiltzea garapen jasangarriari begira.


16. Bakea eta justizia

**Helburua:**

Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

Teknologia eskuragarriagoa da

Bestalde, kontsumorako teknologien merkatzearen faktorea ere kontuan izan behar da.




Ikerketa eta berrikuntza arduratsua

Ikerketa eta berrikuntza arduratsuaren (RRI ingelesez) alde lan egitea sei eremutan dago banatuta:

- **Etika.** Zientziaren alderdi etikoari erreparatzen dio. Praktika onartezinak prebenitzeko asmoa du eta garapen zientifikoaren onarpen etikoa lantzen du.
- **Gobernantza.** Ardurak denek artean banatu behar dira eta, horretarako, gobernantza-instrumentuak eskaini behar dira gizartearekin ardura partekatua errealitate izateko.
- **Zientzia-hezkuntza.** Zientziaren irakaskuntza hobetu behar da herritarrek erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten, bokazioak ere landuz.
- **Genero-berdintasuna.** Ikerketa-taldeetan genero-berdintasuna landu, zientziako erabaki-taldeetan ere gizartearen isla egokiagoa egiteko.
- **Datuen atzipen librea.** Zientziaren informazio librea, elkarreraginerako eta elkarrekin eraikitzeko aukera azkarragoak izateko.
- **Herritarren partaidetza.** Ikerketa-prozesu osoan herritarren partaidetza bultzatu, emaitzak gizartearen balio, behar eta nahietara gehiago hurbiltzeko.

Ikus ZientziaKIDE.



Bizipenak eta komunitatea

Ikasketa-hautaketari buruz, **Aspires** ikerketak erakutsitakoaren arabera:

STEAM gustuko izatea **ez da nahikoa.**



Bokazioak lantzeko adin-gakoa:
10-14 urte.



Geroz eta
zailago!

STEAM ikastea,
zientzialari izateaz
haratago.




Aurreiritziak,
estereotipoak
eta
uste okerrak
zientziaren
ikuspegiari
lotuta.



Gazteak ahalduntzeko, STEAM
gaien **ezagutza errealista**
eman.



Familiaren eta inguru sozialaren garrantzia zientzia-kapitala handitzeko.




...BIZIPENAK SORTU!

Bost eremutan biltzen dira STEAM ikasketak aukeratzeko erabakian eragiten duten faktoreak (ikus **Ingenious**):

1 Eremu pertsonala

- Uste okerrak saihestu.
- Auto-pertzepzioa.
- Zientziaren ikuspegi mugatua gainditu.



2 Familia-eremua

- Senideen "zientzia-kapitala".
- STEM langileak familian...



5 Testuinguru ekonomikoa



3 Eremu soziala

Zientziaren ikuspegi aisialdiko produktuetan eta komunikabideetan.




4 Hezkuntza-eremua

- Irakaskuntza-metodologiak.
- Ikasketetarako orientazioa.



...KOMUNITATE osoa inplikatu behar da

STEAM
Bizipenak
sortu,



KOMUNITATE
osoaren parte-
hartzearekin:

BIZIPENAK
ETA
KOMUNITATEA.



Ikasleak



Profesionalak



Familiak



Adituak



Gizartea



Laborategiak



Unibertsitateak

STEAM Euskadi estrategia

- **steam.eus**
- **Eusko Jaurlaritzaren estrategia hezitzaile eta profesionala Euskadirako. 2018ko ekainean aurkeztua.**
- **Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika uztartzen dituzten artearekin eta humanitateekin, **diziplinartekotasunaren garrantzia azpimarratuta.****
- **Oinarrizko STEM konpetentzietan eta zeharkako konpetentzietan oinarritutako hezkuntza.**
- **Ikasleak ahaldundu nahi dira, gure gizarteko erronkei aurre egiteko.**



STEAM Euskadi strategiaren helburuak:

- 1.- Hezkuntza zientifiko-teknikoa sustatzea eta eragile sozioekonomikoekin harremanak eta elkar-lana sustatzea.
- 2.- STEM arloan asmo profesionalak piztea, generoa ardatz hartuta.
- 3.- Herritarren artean kultura zientifiko-teknologikoa zabaltzea.

Zer izan behar du proiektu batek **STEAM** hezkuntzaren barruan sartzeko?



STEAM HEZKUNTZA IKASTETXEETAN



STEAM HEZKUNTZA IKASTETXEETAN

- Zientziari buruzko ezagutza.
- Zer jakin behar da zientziaz?
- Zer dio zientzien didaktikaren ikerketak?
- Euskadiko ikastetxeak.
- STEAMGUNEA.

Zientziari buruzko ezagutza

Zientzia natura aztertzeko sorkuntza intelektuala da.



ZIENTZIALARIEN ZIENTZIA

Ezagutza + Teoria +
+ Metodologia +
+ Pentsamendua

ZIENTZIALARIEN LABORATEGIAK

Galderak egiteko,
ikertzeko eta
berritzeko
diseinatutako tokiak.




ESKOLA-ZIENTZIA

Zirrikiturik gabeko egia
gisa aurkezten da.

Ezagutza teorikoak.

Zenbakizko ariketak
egitean oinarritu izan da.

Ez dira azaldu izan historian
egindako akatsak.



ESKOLA-LABORATEGIAK


Lehentasuna du irakaslearen ezagutzak
ikaslearen galderen gainetik.

Pentsamendu kritikoarentzat toki gutxi.

Dogmatikoagoa da.



Hezkuntzaren azken joerek ikasleen **ulermena** ipintzen dute erdigunean, ezagutzaren ordean.



Norantz joan behar du eskolako zientziak?

Intelektualki, sozialki eta akademikoki erakargarria den gelako giroa lortzerantz, ikasleek gogoeta-galderak egin ditzaten.

Gehiago jakiteko: Chin eta Osborne, 2008.

Zer jakin behar da zientziaz?

Zientzia-hezkuntzaren hamar printzipioak

1. Derrigorrezko hezkuntzako urte guztietan, eskolek sistematikoki izan behar lukete jomugan, beren zientzia-hezkuntzako programen bitartez, ikasleek munduari buruz duten jakin-mina garatzea eta mantentzea, jarduera zientifikoarekin gozatzea eta fenomeno naturalak nola azaldu daitezkeen ulertzea.

2. Zientzia-hezkuntzaren helburu nagusiak izan behar luke pertsona guztiak gai bihurtzea erabakietan modu informatuan parte har dezaten eta norberaren eta gizartearen ongizateari eta ingurumenaren ongizateari eragiten dioten ekintzetan parte har dezaten.

3. Zientzia-hezkuntzak xede ugari ditu, eta honako hauek garatu behar lituzke:

a. Zientzietako “ideia handiak” ulertzea, zientziaren eta zientziari buruzko ideiak eta zientziak gizartean duen rola barne.

b. Ebidentziak lortzeari eta erabiltzeari lotutako gaitasun zientifikoak.

c. Jarrera zientifikoak.

4. Aurrerapen argi bat finkatu behar litzateke zientzietako hezkuntzaren xedeetarantz, adieraziz zer ideia lortu behar diren etapa bakoitzean, kontzeptuak eta nola ikasten den ulertzeko aukera ematen diguten oraintsuko ikerketak arretaz aztertuz.

5. Ideia handietarantzko aurrerapenak ikasleentzat interesgarriak diren eta beren bizitzarako garrantzitsuak diren gaiak aztertzearen ondorioa izan behar luke.

6. Ikaskuntza-esperientziek ezagutza zientifikoaren eta egungo zientzia- eta hezkuntza-pentsamenduarekin bat datorren ikerketa zientifiko esplizituaren ikuspegia islatu behar lukete.

7. Zientzietako curriculumeko jarduera guztiek ideia zientifikoaren ulermenean sakondu behar dute, eta bestelako xede batzuk izan behar dituzte, hala nola jarrerak eta gaitasunak sustatzea.

8. Ikasleen ikaskuntza bideratzen duten programek, hasierako trebakuntzak eta irakasleen garapen profesionalak koherenteak izan behar lukete 3. printzipioan adierazitako xedeak lortzeko behar diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-metodologiekin.

9. Ebaluazioak funtsezko rola jokatzen du zientzia-hezkuntzan. Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazio formatiboa eta haien aurrerapenaren ebaluazio sumatiboa xede guztiei aplikatu behar litzaizkieke.

10. Helburu horiek betetzeko egiten den lanean, eskoletako zientzia-programek sustatu behar lukete irakasleek elkarri laguntzea eta komunitateak parte hartzea, zientzialarien parte-hartze aktiboa barne.

Zientziaren ideia handiak

Unibertsoko
MATERIA
oro partikula oso txikiz osatuta dago.

Objektu batek eragina izan dezake urrunetik beste objektu batean.

Objektu batek mugimendua aldatuko bada indar garbi batek eragin behar dio.

Unibertsoak beti du energia-kantitate bera, baina energia eraldatu egin daiteke zerbait aldatzen bada edo gertarazten bada.

Lurraren eta atmosferaren konposizioak eta haietan gertatzen diren fenomenoek forma ematen diote Lurraren gainazalari, eta eragina dute kliman.

Eguzki-sistema unibertsoan dauden milioika galaxietako baten zati oso txiki bat da.

Organismoak zelulatan antolatuta daude.


Organismoek energia eta materialak behar dituzte; askotan, haien mende daude, eta haiengatik lehiatzen dira beste organismo batzuekin.

Informazio genetikoa organismo-belaunaldi batetik hurrengo belaunaldira transmititzen da.


Organismo bizien eta desagertuen dibertsitatea eboluzioaren ondorioa da.

Zientziari buruzko ideiak


1. Zientziak jotzen du kausa bat edo gehiago dagoela efektu bakoitzerako.




2. Azalpenak, teoriak eta eredu zientifikoak une bakoitzean ezagututako egitateen berri hobekien ematen dutenak dira.



3. Zientziak sortu duen ezagutza teknologia batzuetan erabiltzen da gizakien xedeetarako balio duten produktuak sortzeko.



4. Zientziaren aplikazioek, sarritan, ondorio etikoak, sozialak, ekonomikoak eta politikoak dituzte.



Zer dio zientzien didaktikaren ikerketak?




Enseñando ciencia con ciencia; <https://www.fecyt.es/es/publicacion/ensenando-ciencia-con-ciencia>

2020ko Otsaileko argitalpena; FECYTEk eta Fundación Lillyk argitaratuta. Koordinatzaileak: Digna Couso, M. Rut Jiménez-Liso, Cintia Refojo eta José Antonio Sacristán.


Enseñando ciencia con ciencia argitalpenak azpimarratzen du zientzien irakaskuntzaren praktikaren eta eremu honen inguruan dagoen ikerketa zientifiko ugariaren artean egin beharreko loturaren beharra. Diziplinarteko ikerketa corpus honek neurozientziaren, ikaskuntzaren psikologiaren, pedagogiaren, eta, batez ere, zientzien didaktikaren emaitzak biltzen ditu, eta gaur egun zientzien ikaskuntzan eta irakaskuntzan funtzionatzen duenaren eta funtzionatzen ez duenaren inguruko ebidentzia zientifikoak eta adostasunak erakusten dizkigu. Ikasgelan zientzia ikasteko modurik onena da zientziak dituen prozedurak, hizkuntza eta pentsatzeko modua erreplikatzeko.

1. Zientzia ikasi ideiak zalantzan jarriz.
2. Ikaskuntza kooperatiboaren onurak.
3. Ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa.
4. Zientzia irakatsi herritar askeak prestatzeko.
5. Genero-estereotiporik gabeko zientzien irakaskuntza.
6. Eztabaidaren erabilera ikasgelan.
7. “Neuromitoak” irakaskuntzan eta lanean.





1. Zientzia ikasi ideiak zalantzan jarritz

- Zientziaren irakaskuntzak lagundu behar du sinesmen intuitiboak azaltzen; eta horiek berreraikitzen edota moldatzen ere bai. Nola? Beste jakintza eta pentsatzeko modu konplexuago batzuekin solasean.
- Ikasleek beren intuizioak zalantzan jar ditzaten, problemak jarri behar zaizkie, aurreikusi ezingo dituzten beste egoera batzuen aurrean jarri behar dira; edo beren intuizioak zentzuz azaltzeko eskatu behar zaie.
- Ikasleek beren zientzia intuitiboa moldatzen laguntzeko, ez zaie pentsarazi behar uste okerretan daudela, baizik eta lagundu behar zaie uste horiek berreraikitzen, ezagutza zientifikoarekin erkatuta, eta jakintzen integrazio-prozesu baten barruan.




2. Ikaskuntza kooperatiboaren onurak

- Talde-lanak taldekideen artean benetako kooperazioa izan behar du. Orduan, ikaskuntza hobeak eragiten ditu: harreman sozial hobeak, ulermen sakonagoa eta ikaskuntza autonomoagoak.
- Ez da nahikoa ikasleek taldean lan egitea; haien arteko kooperazioa sustatu behar da, horretarako estrategia didaktiko espezifikoak baliatuta.



Talde-lanari buruzko uste okerrak:


- ✗ Talde-lanean ardura indibidualak garrantzia galtzen du eta soilik ikasten dute interes handiena dutenek.
- ✗ Taldeka jartzea nahikoa da ikasleek modu kooperatiboan ikas dezaten.
- ✗ Ikasleak taldekatzean, hobe da maila bera duten ikasleen talde homogeneoak sortzea; horrela, elkarrekin egingo dute aurrera.




Talde-lanean kooperazioa sustatzeko zenbait ideia:



- 3-4 kideko taldeak egin.
- Talde heterogeneoak.
- Helmuga argi bat ezarri, baina kide batek berak bakarrik lortu ezin duen helmuga.
- Taldearen lana gainbegiratu, ardura indibiduala ez dadin taldean galdu.
- Jokabide kooperatiboan parte hartzen duten abilezia sozialen ereduak eta estrategiak erakutsi, argi ilustratuz zein jokabide diren kooperatiboak eta zein ez.
- Ekidin taldeetan bakoitzak hobetoen egiten duena egiteko ardura hartzeko estrategiak bilatzea.
- Gainbegiratu taldean suertatzen diren elkarrekintza sozialak, baita langai diren eduki zientifikoaren inguruko eztabaidak ere, bi ikaskuntzak optimizatzeko helburuz.





3. Ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa

Ikerkuntza didaktikoak gomendatzen dituen praktika zientifikoak: ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa.



Ikerketa



Modelizazioa




Argumentazioa

Ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa

Ikerketa gidatuaren bidezko irakaskuntzarekin ikasleak eduki zientifikoa ezagutzen du, zientziaren prozedurak ikasten ditu, zientzia zer den eta nola eraikitzen den, eta horrek



zientziarekiko jarrera positiboa eragiten dio, eta, batez ere, pentsamendu kritikoa garatzen laguntzen dio, alegia, ikasiko du ebidentzietan oinarrituta ez dauden baieztapenak zalantzan jartzen.



Ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa

Modelizazioaren prozeduren bidez, eredu interpretatiboak asma daitezke, balioko digutenak fenomenoak deskribatzeko,

aurreikusteko, azaltzeko eta haien gainean eragiteko, dakigunaren eta dauzkagun datuen arabera, eta beste testuinguru batzuetara transferitzeko.



Ikerketa, modelizazioa eta argumentazioa

Argumentazioa da ebidentzietan oinarritzen den jakintzaren ebaluazioa. Gaur egun, kontrastatu gabeko baieztapen

pseudozientifikoak edo buloak batera eta bestera dabiltzan honetan, argumentazioa da pentsamendu kritikoa garatzeko tresna.



4. Zientzia irakatsi herritar askeak prestatzeko



- STEAM hezkuntzak bidea ematen du ikasgelan jakintza zientifiko-teknologikoaren demokratizazio-prozesuak praktikan jartzeko.

- Jakintza zuzena eta sesgorik gabekoa da zientzia-didaktikaren gakoa.

Errealitatean oinarritutako albisteekin lotu jakintza zientifikoa (buloak saihestu).


Zientzia, guztiongana iritsi behar duen eskubidea.

- Diziplinartekotasunetik ulertutako STEAM jardueran, talde-lanak zera eskaintzen ditu:

- ikuspegi anitzak,
- zientziaren kontzientzia globala,
- problema konplexuak ebazteko oinarri aberatsa eta sortzailea,
- etorkizunaren eraikuntza soziala.

Humanizatzen gaituen ondasun komuna da zientzia.

5. Genero-estereotiporik gabeko zientzien irakaskuntza



Ikerketak erakutsi du:

Neskek, oso adin txikitik (6 urte inguru), uste dute kide mutilak argiagoak direla. Bi estereotipo mota daude: esplizituak eta inplizituak. Inplizituak sakonagoak dira, ez dira kontzienteak, eta gure portaeran eragiten dute. Betikotzen dute, adibidez, zientzia jarduera maskulinoa delako pertzepzioa.

Erreferente femeninoek lagundu dezakete nesken STEM diziplinekiko interesa pizten.

Badirudi neskek emaitza txarragoak lortzen dituztela ingurune oso lehiakorretan.






Zientziaren irakaskuntzari buruzko uste okerrak, genero-berdintasunari dagokionez

- ✗ Zientziek (eta zientzia-hezkuntzek) ez dute sesgorik, diziplina erabat objektiboak dira.
- ✗ Nesken hezkuntzan ez da ahalegin berezirik egin behar STEM diziplinetan. Ez dituzte hautatzen ez dituztelako gustuko.
- ✗ Edozein hezkuntza-mailatako irakasleek inongo sesgorik gabe ebaluatzen dituzte beren ikasle nesken eta mutilen gaitasunak.
- ✗ Genero-estereotipoak arintzea ezinezkoa da.
- ✗ Jaiotzez dira desberdinak nesken eta mutilen abileziak.
- ✗ Genero-berdintasunean aurreratuen dauden herrialdeek emakumezko gehiago dituzte STEM diziplinetan interesatuta.
- ✗ STEM karreretan abiatzen diren emakumezkoak eta gizonezkoak maila berean garatzen dira.
- ✗ Ingurumen-arazoen eta hondamendi naturalek modu berean eragiten dute emakumezkoen eta gizonezkoen gain.
- ✗ Ez dago genero-desberdintasunik ingurumen-hezkuntzan.

6. Eztabaidaren erabilera ikasgela



Ikasgela eztabaida soziozientifikoak erabiltzea aukera didaktiko paregabea da:


- ideia zientifikoak eta ikasleen inguru hurbila konektatzeko,
- irakasten dugun zientzia erabilgarria izan dadin,
- ulermenerako, erabakimenerako, eta herritar aske eta autonomia izateko.



Eztabaida soziozientifikoak erabaki bat hartzerantz orientatutako galderak dira, non alderdi zientifikoak eta sozialak hartu behar baitira kontuan, eta ebazpen irekia dutenak; esaterako, ingurumen-arazoak kudeaketa, edo arazo bioetiko nahiz teknologikoen proposamenak.

(Adibideak: energia nuklearra erabili edo ez, bakunazioa ezinbestekoa izatea, edo produktu homeopatikoa saltzea farmazietan).

Dilema horietan zientziak parte hartzen du, eta gogoeta etiko nahiz balio pertsonal edo sozialek ere bai.



7. “Neuromitoak” irakaskuntzan eta lanean

Gizartean hedatuen dauden burmuinari buruzko zenbait mito:

✗ Pertsonok **burmuinaren % 10** besterik ez dugu erabiltzen.

✗ **Irakaskuntza-eredua** ikasleen ikaskuntza-estiloetara egokitzeak ikasleen ikaskuntza hobetzen du.

✗ Burmuinaren **ezkerraldearekin ala eskuin aldearekin** ikasten duten ikasleak daude.

✗ **Musika klasikoa** entzuteak, Mozart-en musika bereziki, ikasleen adimena handitzen du.

✗ Teknologiaz inguratuta jaio diren gazteak **“natibo digitalak”** dira.

✗ Estimuluetan aberatsak diren **inguruneek** aureskolako nesken eta mutilen burmuinak hobetzen dituzte.

Irakatsi nahi dugun edukiak edo gaitasunak baldintzatu behar du irakasteko modua, eta ez ikasleen “ikaskuntza-ereduek”.

Ez dago ebidentziarik baieztatzeko pertsonen arteko sormen-gaitasuna, logika nahiz emozionatzeko gaitasuna burmuineko hemisferio baten edo bestearen arteko prozesamendu-desberdintasunean oinarritzen dela.

BENETAKOIA

Euskadiko ikastetxeak

Nolakoak dira maila erdi-baxukoa izanda efikazia oso ona duten ikastetxeak?

IKASTETXEAK

- Giro ona. Arazo larririk gabe, lana gustura.
- Ikuspegia: argia, partekatua, errespetatua.
- Lidergo argia: zuzendaritza.
- Kudeaketa ona, koordinazioa.
- Ebaluaketaren kultura: proiektuak.
- Espektatiba altuak ikasle eta irakasleengan.
- Jazarpenak ebatzi egiten dira.
- Klaustroa batuta dago.
- Plantilla egonkorra da.
- Aniztasunari adi dago.




Iturria: Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea (ISEI-IVEI)

Nolakoak dira maila erdi-baxukoa izanda efikazia oso ona duten ikastetxeak?

IKASLEAK

- Jarraipen zuzena tutoretzen bidez.
- Familien parte-hartze zuzena.
- Ikasle-aniztasunaren atentzio efikaza.
- Behar berezidun ikasleei adi.
- Metodologia-aniztasuna: liburuak eta IKTak, ondo erabiliak.
- Ebaluazio-kultura indartsua.



Nolakoak dira maila erdi-baxukoa izanda efikazia oso ona duten ikastetxeak?

IRAKASLEAK

- Dedikazio eta inplikazio handia.
- Trebakuntza eta etengabeko hobekuntzarako gogoia.
- Kalitatezko proiektuak.
- Zaindu egiten dira.
- Tutorearen inplikazio handia.



STEAMGUNEA



Ikastetxeetako STEAM Plana osatzen laguntzeko informazioa, baliabideak eta ereduak biltzen ditu STEAMGUNEak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2019an sortutako tresna da.

STEAM HEZKUNTZA ESKOLATIK AT



STEAM HEZKUNTZA ESKOLATIK AT

